

“Google Cardboard” delakoak eraikitzea, geometria landuz

Google Cardboard-ak errealitate birtualeko betaurrekoak dira, kartoiarekin eta distantzia fokaleko leiarrekin eginak, eta smartphone baten bidez erabiltzen dira. Betaurreko horiek lortzen duten esperientzia birtuala nahiko ona da duten preziorako, eta gainera, Googlek argibideak argitaratu zituen, norberak bere betaurrekoak egin ahal izateko.

Material hauek behar dira:

Kartoa: kartoi lodiko xafla bat, gutxienez 22×56 cm-ko neurriak dituen.

Leiarrak: normalean erosi egin behar dira, betaurrekoen eskemaren arabera neurri espezifikoak dituztelako. 40 mm-ko foku-distantzia duten leiar batzuk gomendatzen dira.

Batzuetan, betaurrekoak osorik erostea baino garestiagoa izan daiteke.

Disko magnetikoa: gailu mugikorrarekin elkarri eragiteko aukera ematen digu. Hozkailuetan jartzen direnak erabil ditzakegu.

Belkroa: bi belkro-zerrenda, telefonoa txertatzen den konpartimentua ireki eta itxi ahal izateko.

Goma: betaurrekoak telefonoari eusteko erabiltzen da.

NFC etiketa: ez da nahitaezkoa baina Cardboarden aplikazioa azkarrago irekitzen lagunduko digu.




Jarraian, inprimatu beharreko orriak aurkituko dituzu. Horiek eskutan dituzunean, “arkatzak erdira” egitura erabiliz, erantzun azken orriko galderei.

1- Zer neurri du behar dugun kartoiaren azalerak? Idatzi kalkulua eta emaitza, unitate egokiekin.

2- "A" letraz adierazi da begientzako utzi behar dugun zuloa. Neurtu zirkulu horren diametroa. Zer erradio du? Mozten dugunean, zer azalera izango du kartoian egindako zuloak? Idatzi kalkuluak eta erabili unitate egokiak.

3- "B" letraz adierazi den laukizuzena ere ebaki beharko dugu. Zer azalera izango du zulo horrek? Idatzi kalkuluak, eta erabili unitate egokiak.

4. "C" letraz adierazi den pieza eta markatutako zuloak ebaki ondoren, zenbat izango da piezaren azalera? Idatzi kalkulu guztiak.



1.




Inprimatu dokumentu hau.

2a.



Itsatsi kartoian.

2b.



*Itsatsi atzealde zuria
duten zenbakiak,
beltzen gainean.*

3.



Ebaki kartoia.

4.



Elkartu zatiak.

